

## HITZ BITAN

## HOMOSEXUALITATEA

## Alonsoren jarrera «koldarra» izan zela adierazi dute EAJk, PSEk eta Batasunak

Erredakzioa | DONOSTIA

Alfonso Alonso Gasteizko alkatearen jokaera «koldarra» izan zela adierazi dute EAJk, PSE-EEK eta Batasunak, bikote homosexualak ezkondu ahal izateko Espainiako Kongresuan erakutsitako jarrera kritikatu. Izan ere, gay eta lesbianeiei eskubide hori onartuko zien Kode Zibilararen aldaketa bozkatu zuten herenegun Kongresuan; PPko diputatuak kontra bozkatu zuten eta Alfonso Alonsok ez zuen bozkatu, eskubide horren alde dagoela «agerian uzteko». PSE-EEK, EAJk eta Batasunak diotenez, bere iritzia hori bada, Kode Zibilararen aldaketaren alde bozkatu behar zuen.

PSE-EEK prentsa oharrean adierazi zuenez, «tamalgarria da Alonsok Madrilen erakutsi duen ausardia politiko eza». Sozialisten ustez, «nahikoa izango zen abstenitu izan balitz», baina bozketan ez parte hartzea «triste» da. «Eztabaidan botoa eman nahi ez izateak aurpegia emateko duen beldurra erakusten du».

## «Ezkutatu» egin dela dio EAJk

EAJk ere PSE-EEren iritzia bera du. Haren arabera, Alonsoren jokabidea «faltua eta koldarra» da. «Gasteizen aurrerakoi itxura eman nahi du; baina, atzo (herenegun), ezkutatu egin zen. Kode Zibilararen aldaketaren alde bozkatzeko aukera eduki eta ez zuen egin», adierazi zuen Gasteizko EAJko bozeramaile Maria Jesus Agirrek.

Gasteizko Batasunak Alonsoren «inkoherentzia» nabarmendu zuen. Batasunaren arabera, «aukera paregabea galdu zuen Alonsok ahotsa homosexualen eskubideen alde altxatzeko». «Baina argi gelditu da homosexualen aldeko jarrera hori itxura besterik ez dela, alkate heterodoxoaren irudia eman nahi duela».

IÑIGO AZKONA  
Maite Barreña eta Iñaki Antigüedad, atzo eman zuten prentsaurrekoan.

## BOROAKO ZENTRALA

## Erreferendumaren emaitzak jakin arte ESBri baimenik ez emateko eskatu du Batasunak

G. Agirre | BILBO

Batasunak Boroako zentralaren inguruan erreferenduma egiteko erabakia bere egingo duela adierazi zuen atzo alderdi horretako Lurralde Antolaketako arduradun Iñaki Antigüedadek; eta bozketaren emaitza jakin arte ESB enpresari lan edo jardura baimenik ez emateko eskatu zion Zornotzako Udalari.

Antigüedaden arabera, erreferendumera deitzeko Begoña Azarloza alkatearen erabakia egokia da; herritarrek herrian eragina duten gaiez erabakitze-ko gaitasuna izan dezaten tres-

na «baliagarria eta beharrezkoa» delako.

Era berean, erreferenduma «behar bezala» joan dadila bermatzeko Udalak beharrezko birtartekoak jarri behar dituela uste du Batasunak. Hau da, proiektuaren aldeko eta kontrako aldeek beren jarrerak azaltzeko aukera berak izan behar dituztela nabarmendu zuen Maite Barreña Bizkaiko Batasuneko batzarkideak.

Bestalde, Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak, Bizkai Buru Batzarrak edo Jose Luis Bilbao Bizkaiko Lehendakaritza diputatuak bozke-

ta deialdiari egindako kritikak gaitzetsi zituen Antigüedadek. Horien arabera, erreferenduma udal baliabide ekonomikoak xahutzea da eta Udalak ez du gai horren inguruan erabakirik hartzeko eskumen legalik.

## «Erreferendumaren emaitza aurrera eramateko ahalmena»

Udalak eskumen hori ez duela onartu arren, Antigüedadek «larritzat» jo zuen «proiektua ontzat ematea, Imazek egiten duen bezala». Ildo horretan, behin erreferenduma egin ostean, Udalak ateratzen den emaitza «aurrera eramateko ahalmena» izatea eskatu zuen, «nahiz eta eskuduntzak Madril-ek eta Jaurlaritzak izan».

Era berean, Batasunak sostengatu egin zuen Zornotza Bizirik plataformak urriaren 20rako deitu duen zentralaren kontrako manifestazioa.

## GAZTELUKO PLAZA

## Udal gobernuari larunbatean bozka dezala eskatu dio hiri plataformak

Gazteluko plazako aparkalekuaren kontrako hiri plataformak larunbatean botoa emateko eskatu zien atzo Iruñeko udal gobernuari kideei. Bozkalekuak ez uzteko Udalak hartutako erabakiari erantzunez egin zuen deialdi hori plataformak. Plataformako kideek komunikatu bat kaleratu zuten atzo eskaera horrekin, eta herri kontsulta «oso serio» hartzen dutela nabarmendu zuten. Izan ere, Iruñeko Udalak «parodiatzat» eta «protesta ekintzat» jo du etzi egingo den erreferenduma. Yolanda Barcina alkateak argi utzi du ez dituela emaitzak kontuan hartuko.

## EZBEHARRA

## Emakume bat hil da trenak harrapatuta Donostiako Martutene auzoan

Emakume bat hil zen atzo Donostian tren batek harrapatuta. Ezbeharra goizeko bederatzieta gertatu zen, Martutene auzoko tren geltokian hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak ez du zehaztu zergatik gertatu zen ezbeharra. Renfe konpainiaren trenak aurrez aurre jo zuen emakumea, trenbidean zegoela. 42 urteko M.R.M.S. oso zauri larriak zituela eraman zuten Donostia Ospitalera. Medikuek ezin izan zuten ezer egin haren bizia salbatzeko, hartutako kolpeak larriegiak zirelako.

## OSASUNA

## Gastroenteritisak jo ditu Donostian herri bazkari batean parte hartu zuten berrogei lagun

Gutxienez 40 lagunek gastroenteritisa dute, iragan igandean Donostiako Añorga auzoan egindako herri bazkari batean parte hartu ostean. Guztira 400 lagun egon ziren bazkari horretan, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gastroenteritis kasu gehiago ager daitezkeela ohartarazi du. Gaitza duten gaixoen sintomak beherakoa, goragalea eta sukarra direla argitu zuen Osasun Sailak, eta kasu gehienetan medikuarengana joan behar izaten dutela. Hainbat gaixo ospitaleratu ere egin behar izan dituzte, baina orain ez dago inor ospitalean.

## EUSKARA

## Justizia arloko langileen hizkuntz eskakizunak «epe jakinik» ez duela erantzun dio Jaurlaritzak CSIFeri

Abel Muniategi Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak CSIF sindikatuak ezarritako helegitearen inguruan hitz egin zuen atzo, eta Justizia Administrazioako langileentzako hizkuntza eskakizunek «epe jakinik» ez dutela adierazi zuen. Ildo horretan, eskakizunen inguruko dekretua «ez ulertzea» eta «ulermen akats nabarmena» egitea egotzi die Muniategik CSIF sindikatuari eta Espainiako Gobernuari.

## ENERGIA NUKLEARRA

## Madrilek dio zehaztu gabe dagoela Garoñako zentralen erabilitako erregaia soberakinekin zer egingo den

Espainiako Gobernuak bigarren presidenteorde Rodrigo Ratok atzo adierazi zuenez, oraindik zehaztu gabe dago Garoñako zentral nuklearrean erabilitako erregaia soberakinekin zer egingo den. Orain arte Erresuma Batura eramaten zirela argitu zuen Ratok, 1983ko hondakinen gestiorako plangintzak hala agintzen zuelako; baina aurrerantzean nora eramango dituzten ez dakite. Azaldu zuenez, oraingoz zentralen bertan dauden putzuetan gorde-tzen dira, behin-behineko edukiontzietara eramaten dituzten arte.

## HEZKUNTZA

## Jaurlaritzari Trebiñon ikastola eraikitze eskatzen zion mozioaren aurka bozkatu dute PPK, UAK eta PSE-EEK

Eusko Jaurlaritzari Trebiñon ikastola eraikitze eskatzen zion mozioaren kontra bozkatu zuten atzo, Arabako Biltzar Nagusietan, PPK, UAK eta PSE-EEK. Mozioa Batasunak aurkeztu zuen, eta Trebiñon ikastola eraikitzeaz gain, Trebiñoko herritarrek arabar gisa hartzeko eskatzen zion Arabako Foru Aldundiari. Alderdi abertzaleak ados azaldu ziren mozioaren edukiarekin, baina aipatutako alderdiak proposamena atzera bota zuten.